# 2024KO AURREKONTUAK

## PROPOSAMENAK

*EUSKARA*

tolosatzen

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

# Proiektuak

## Tolosa, pertsona ardatz duen herria

| | |
|---|---|
| **01** Kalistenia eta kaleko kirol parkeak | 40.000 € |
| **02** Alondigan haur parkea | 115.000 € |
| **03** Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako udaleku irekiak | 150.000 € |
| **04** Tolosaldeko emakumeen historia ikertzea | 20.000 € |

## Ingurunearen babesa eta udalerriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria

| | |
|---|---|
| **05** Zabalarretan “kiosko-aterpe” bat, eszenatoki-aterpe txiki batekin | 50.000 € |
| **06** Bedaio auzoko frontoia egokitu | 20.000 € |
| **07** Komun publikoa Larramendin | 80.000 € |
| **08** Hilerrian komuna | 110.000 € |
| **09** Larramendin jolas eta ariketa fisikorako gunea | 110.000 € |
| **10** Emeterio Arreseko eraikina berritzea | 200.000 € |
| **11** Haurrentzako ur parkeak | 50.000 € |
| **12** Terraza publikoa zerkausian | 150.000 € |
| **13** Bizikleta aparkaleku egokiak jarri | 20.000 € |
| **14** Iurramendi eta Amarotz auzoak bidegorri bidez lotu | 60.000 € |
| **15** Baso eskola programaren zabalpena | 20.000 € |
| **16** Energia bulegoa sortu | 65.000 € |

## Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri-ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz

| | |
|---|---|
| **17** Merkataritza sustatzeko plana | 30.000 € |

# Tolosa, pertsona ardatz duen herria

| 1<br><br>Kodea | 2024<br><br>KIRO 3 | |
|---|---|---|
| Saila | KIROLAK | |
| Eskaera kopurua | 6 | |
| Proposamena | Kalistenia eta kaleko kirol parkeak | |
| kiro3, kiro4, kiro16,kiro28, kiro34 eta kiro43 proposamenak eskaera bera egin dute: kalistenia parkea jartzea. | | |
| Deskribapena | | |
| Herriko gune ezberdinetan kalistenia elementuak jartzea edonork ariketa fisikoa, aire librean, eginahal izateko. | | |
| Bideragarritasun azterketa | Bideragarria guztiz | |
| Balorazio teknikoa | Kirol sailak 2024an egitasmoa bideragarria ikusten du.<br><br>Hirigintzarekin adostuta herriko gune aproposenak aukeratuko dira. | |
| Balorazio ekonomikoa(+-) | 40.000€ | |
| Epea (motz, ertain, luze) | Urtean zehar | |
| Bideragarritasuna | BAI | |

| | |
|---|---|
| **2**<br>Kodea | **2024**<br>**GAZT 1** |
| **Saila** | GAZTERIA |
| **Eskaera kopurua** | 1 |
| **Proposamena** | Alondigan haur parkea |
| Haur parkea Alondegia plazan. | |
| **Deskribapena** | |
| Alondegia plazan dagoen tokia probesteko, eta eskaera handi bati erantzun bat emateko asmoz, herritar batek haur parke bat jartzea proposatzen du estalkiaren barruan. | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria |
| **Balorazio teknikoa** | Egokia izan daiteke eremu honetan haur parkea egitea. Hirigintza saileko teknikariekin kontrastatzeko gaia, behealdean Garajeak baitaude eta elementuen ainguraketak inpermeabilizazioan eragin dezake. |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 115.000,00 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Ertaina-2024 ikasturtea |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| | |
|---|---|
| **3**<br>Kodea | **2024**<br>**GAZT 8** |
| **Saila** | GAZTERIA |
| **Eskaera kopurua** | 1 |
| **Proposamena** | UDALEKU IREKIAK |
| Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako udaleku irekiak. | |
| **Deskribapena** | |
| Aukera berdintasuna bermatze aldera eta segregazioari aurre egiteko ezinbestekoa litzateke urratstxikiak ematen hastea. Tolosako Udalak Udako aisialdi eskaintza publikoa izateko beharra azpimarratu da. | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria |
| • **Balorazio teknikoa** | Tolosako udalak martxan dituen foro ezberdinetan behin ta berriz ateratzen ari den gaia da hau. Hezkuntza mahaia hezkuntza arautu eta ez-arautuko eragileek osatzen dute, eta aisialdiaren eskaintza lantzen ari da bertan. Era berean, eta etengabe, herri mailako eskaintza bateratu baten beharraz aritu dira, horretarako aisialdi eskaintza udalak esku joan beharra du segregazioari aurre egiteko, eta aukera berdintasuna sustatzeko. |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 150.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Ertaina 2024 ikasturtea |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| | |
|---|---|
| **4**<br><br>Kodea | **2024**<br><br>**BERD1 eta BERD3**-ren zati bat (ikerketa lanari dagokionez) |
| Saila | **BERDINTASUN SAILA** |
| Eskaera kopurua | **Bat eta beste baten zatia.** |
| Proposamena (BERD1) | **Tolosaldeko emakumeen historia ikertzea** |
| Deskribapena | Itzalpean dauden Tolosaldeko emakumeen historia azaleratzekoikerketa. Bertan, honako hauek iker litezke: biografiak; emakume horien lanbideen deskribapenak, eta lanbide horiek zer eragin eta garrantzia izan zuten garaiko gizartean eta gaur egungoan; eta abar. Ikerketa eginda, lortutako informazioak aukera emango luke Tolosaldeko kaleen izendegian txertatzeko,herrian zehar bisita gidatuak prestatzeko, Trivial antzeko jolas bat sortzeko… |
| Proposamena (BERD3) | **Bizirik dauden eta gazteentzat eredu izan litezkeen Tolosaldeko emakumeen inguruko material didaktikoasortzea.** |
| Deskribapena | Garrantzitsua da ereduak izatea; horiek izanda, ez da errealitatejakin bat irudikatu behar, dagoeneko badelako. Gure garaian, esaterako, txirrindulari-emakumeen taldeak izan ziren, aurrekobelaunaldian bidea urratu zuten emakumeak bizikletan ikusten genituelako; ez zen emakumeen arraunlari-talderik izan, lehenago emakume arraunlaririk ez zegoelako; edo ez ginen pertika-jauzian aritu, esaten zutelako altuera hartatik erortzea txarra zela emakumeen ugal-aparaturako. Gaur egungo gazteentzat (batez ere emakume gazteentzat) eredu izan litezkeen emakumeen berri emateko, material didaktiko bat sortzea da proposamena, estereotipoekin apurtzeko, guztiontzataukera anitzak daudela aurkezteko. Horretarako, hainbat arlotan aritzen diren Tolosaldeko emakumeak elkarrizketatu eta eskualdeko eskoletan zabaltzeko materiala sortzea da asmoa: podcastak, elkarrizketa horietan oinarritutako liburu bat, emakume eredugarri horiek ikastetxeetan zuzenean elkarrizketatzeko aukera izatea... Ereduak ikusita, ez delako ezer berririk asmatu behar, dagoeneko egina dagoen bideari heldu eta aurrera egin baino. |
| Bideragarritasun azterketa | **Bai, baina BERD1 proposamen osoa eta BERD3 proposamenaren zati bat elkartu behar dira.** Hau da, iraganekoemakumeei (BERD1) eta egungo eta oraintsuko emakumeei buruzko informazioa (BERD3). bilatzeko eta islatzeko **ikerketa bakarra egitea.** |
| Balorazio teknikoa | Tolosako Jabetze Eskolan 2016. urtetik egindako lana eta |

| | | |
|---|---|---|
| | Tolosaldepedian egindakoa izan daitezke, ikerketa hasteko informazio-iturrietako batzuk, besteak beste. | |
| **Balorazio ekonomikoa(+-)** | 20.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | 2024. urtea | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

# Ingurunearen babesa eta udalerriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria

| | |
|---|---|
| **5**<br>**Kodea** | **2024**<br>**HIRI 28** |
| **Saila** | HIRIGINTZA |
| **Eskaera kopurua** | 2 (HIRI 28, HIRI 108) |
| **Proposamena** | |

Zabalarreta txukundu
Zabalarretan "kiosko-aterpe" bat, bere tamainean, musika, eszenatoki-aterpe txiki bat.

| | |
|---|---|
| **Deskribapena** | |

Zabalarreta txukundu (halako berdegune politta, txakur kakaz josita eta abandonatua)jolas tokiren bat jartzea dago, kaleko gym bat... Mila esker!!
Egurra, burnia elkar bizitzen; zuhaitzak, ura, eguzkia, itzalak, umeak, helduak, artea… parke honetan. Ez da behar kiosko-aterpe haundi bat, esnezatoki txiki-ederra baizik. Etxarri-Aranatz-ekoa da ondokoa; oreka sensible natura-arkitektura behar dela. Bestela, hormigoi plataformabat Oteiza/txillidatuta.

| | | |
|---|---|---|
| **Bideragarritasun azterketa** | bideragarria | |
| **Balorazio teknikoa** | Aztertuko da eta egokitzapenak egingo dira. Kiosko edo aterpea jartzea komeni den ere aztertuko da. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 50.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | ertaina | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

| | |
|---|---|
| **6** <br> **Kodea** | **2024** <br> **HIRI 62** |
| **Saila** | HIRIGINTZA |
| **Eskaera kopurua** | 2 (HIRI 62, HIRI 63) |
| **Proposamena** | |
| Bedaio auzoko frontoiko sarrera egokitu, frontoia pintatu eta estalkia zabaldu | |
| **Deskribapena** | |
| Gaur egun frontoiko sarrerak bertan egiten ditugun hainbat ekitalditarako ekipo eta materialen sarrera erabat oztopatzen du. Sarrera bakarra izanik egokitzea eskatzen dugumaterialak, txoznak, azokarako postuak,.. sartu ahal izateko eta aprobetxatu ere sarrerari duintasun bat emateko. Eskerrik asko <br> Euria, haizea eta keak barrura sartzea eragozteko itxitura bat. Gaur egun dagoen itxitura apur bat jaistea eta teilatutxo bat ateratzea proposatzen da. Elkartetik eta goiko kaletik frontoiko ekitaldiak ikusteko aukera egoteko itxitura hori puntu jakin bateraino jaitsidaiteke, bistak ez eragozteko. Eta bestalde frontoia pintatu | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Partzialki bideragarria |
| **Balorazio teknikoa** | Frontoia margotu eta estalkia konpontzeko aukera aztertu |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 20.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | ertaina |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| 7<br><br>Kodea | 2024<br><br>**HIRI 11** | |
|---|---|---|
| **Saila** | HIRIGINTZA | |
| **Eskaera kopurua** | 5 (HIRI 11, HIRI 15, HIRI 21, HIRI 56, HIRI 92) | |
| **Proposamena** | | |
| Komun publikoa Larramendin | | |
| **Deskribapena** | | |
| Zumalakarregi kaletik Santa Lutzia auzoraino ez dago komun publikorik. Eremu handia da, eta populatua (tartean, Larramendi, Alde Zaharra edo Belate auzoak daude). Biztanlekopuruari eta espazio publiko libreei erreparatuta, Larramendi auzoan komun publikoa jartzea beharrezkoa iruditzen zait. Jende asko pasatzen da Anoetarako bidean. | | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria | |
| **Balorazio teknikoa** | Larramendi auzoan komun publikoa jartzea aurreikusten da 2024an. Aztertuko da herriko beste auzoren batean jartzeko beharra eta egokitasuna. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 80.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | ertaina | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

| | |
|---|---|
| **8**<br><br>Kodea | **2024**<br><br>**HIRI 98** |
| **Saila** | HIRIGINTZA |
| **Eskaera kopurua** | 12 (HIRI 70, HIRI 72, HIRI 98, HIRI 99. HIRI 100, HIRI 101, HIRI 102, HIRI 103, HIRI 104, HIRI 105, HIRI 106, HIRI 107) |
| **Proposamena** | |
| Aseo en el cementerio | |
| **Deskribapena** | |
| La instalación, dentro del recinto del Cementerio de Tolosa, de un servicio de aseo completo, con acceso a personas con movilidad reducida, que debiera ser atendido porel personal que se encarga del cuidado del Cementerio que garantice un buen mantenimiento. | |
| **Bideragarritasun azterketa** | BIDERAGARRIA |
| **Balorazio teknikoa** | Dagokion proiektua idatzita dago eta obrak gauzatzeko lizitazioa martxan da dagoeneko. Beraz, 2024rako komun egokitua izango da Hilerrian. Sarrera ere egokituko da. |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 110.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Motza |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| | |
|---|---|
| **9**<br><br>**Kodea** | **2024**<br><br>**HIRI 4** |
| **Saila** | HIRIGINTZA |
| **Eskaera kopurua** | 4 (HIRI 4, HIRI 16, HIRI 22, HIRI 77) |
| **Proposamena** | |
| Larramendi jolas eta ariketa fisikorako gunea | |
| **Deskribapena** | |
| Larramendi auzoko instalazioak hobetzea, parkea berritzea, auzoan zeuden eta kenduziren beste bi parkeak berriz jartzea, baloiarekin jolasteko eremu bat, ...<br>Larramendiko jolas parkean 2 zabu edo kolunpio bakarrik daude. Une askotan, elkartzendiren ume txikiak kontutan izanda, ez dira nahikoak asko gutxiago ere. Erretiratutako 2 jolasen eremuan beste 2 jartzeko tokia legoke. Bestalde, Larramendi 3 ko blokearen barne patioan jolas parke bat bazen bere garaian kendu zena Berriro berreskuratzea ez legoke batere gaizki. Berdin gertatzen da Larramendi 7 ko barne patioan. | |
| **Bideragarritasun azterketa** | BIDERAGARRIA |
| **Balorazio teknikoa** | Haur parkeen horniduraren lizitazioa prestatzen ari gara eta bertan aurreikusten da Larramendi 3an ariketa fisikoa egiteko aparatuak jartzea. Bestalde, Larramendiko plazan futbolean ibiltzeko eremu bat eta pinponeko mahaiak jarriko dira |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 110.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Ertaina |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| 10 | 2024 | |
|---|---|---|
| Kodea | HIRI 45 | |
| Saila | HIRIGINTZA | |
| Eskaera kopurua | 1 | |
| Proposamena | | |
| Emeterio Arreseko eraikin berritzea. | | |
| Deskribapena | | |
| Tolosako Elkarteek (Beti Ikasten…) eraikin horretan dugu bulegoa eta bertan egiten ditugu bileran. Ez dago leiho bat gela guztietan. Bero ikaragarri egoten da eta ezin daaireatu. Horrez gain, bilerak egiteko gela handiago bat beharko genuke. | | |
| Bideragarritasun azterketa | Bideragarria | |
| Balorazio teknikoa | Emeterio Arreseko goiko solairua egokitzeko obrak egitea aurreikusten da epe ertainean. Aztertuko da aipatzen diren arazoak nola konpondu litezken. | |
| Balorazio ekonomikoa (+-) | 200.000 € | |
| Epea (motz, ertain, luze) | Ertaina | |
| Bideragarritasuna | BAI | |

| | |
|---|---|
| **11**<br>**Kodea** | **2024**<br>**HIRI 111** |
| **Saila** | HIRIGINTZA |
| **Eskaera kopurua** | 1 |
| **Proposamena** | |
| Haurrentzako ur parkeak | |
| **Deskribapena** | |
| Inguruko herri gehienetan ikus dezakegun bezala, haurrentzako ur parke bat faltan botatzen dugu guraso garenok. Parke hauek normalean haurrentzako diseinatzen dira baina gazte eta helduentzako ere balio dute. Eguraldi beroekin (ekaina eta iraila bitarteanbatez ere) herrian bertan plan bat egiteko aukera ematen dute, oraingoz Tolosan dugun aukera bakarra kiroldegiko bazkide izatea da bertan dagoen ur parkea erabili ahal izateko. Ur parke bat kiroldegitik kanpo izan beharko genuke bazkide ez diren herritarrentzat. Aurtengo udara zentzu horretan gogorra izan da. | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria |
| **Balorazio teknikoa** | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 50.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Ertaina |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| | | |
|---|---|---|
| **12**<br>Kodea | **2024**<br>**HIRI1** | |
| **Saila** | HIRIGINTZA | |
| **Eskaera kopurua** | 1 | |
| **Proposamena** | | |
| Terraza del zerkausi pública | | |
| **Deskribapena** | | |
| Terraza del zerkausi abierta al disfrute de la ciudadanía: tomar el sol, leer, comer... | | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria | |
| **Balorazio teknikoa** | Zerkausiko terraza egokitzeko azterketa abian da.<br>Egokitzapen-lanetarako aurrekontua gordeko da. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 150.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | motza | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

| 13 | 2024 | |
|---|---|---|
| **Kodea** | **INGU1** | |
| **Saila** | Ingurumena | |
| **Eskaera kopurua** | 11 | |
| **Proposamena** | Bizikleta aparkaleku egokiak jarri | |
| INGU 1, INGU 9, INGU 34, INGU 38, INGU 50, INGU 51, INGU 53, INGU 79, INGU 80, INGU 87, INGU 73 | | |
| **Deskribapena** | | |
| **Alde zaharrean** hainbat bizikleta egon ohi da edozein tokitan lotuta. Honen aurrean, **berdura plazan** adibidez, debekatu egin zen bizikletak aparkatzea. Argi dago bizikletak aparkatzeko aparkaleku seguruen beharra dagoela. **Araba etorbidean** ere bizikleta aparkalekuak behar dira. **Zezen plaza** inguruan eta **Larramendi** auzoan ere bizikleta lapurreta ugari izaten da eta bizikletak gordetzeko toki seguruak eskatzen dira.<br><br>Bizikleta aparkaleku itxiak behar dira. Aukera bat izan daiteke hutsik dauden lokalak erosi edo alokatu, birgaitzea eta kuota bidez esleitzea.<br><br>Dagoeneko instalatuta dauden aparkalekuei estalkia jartzea ere proposatzen da (INGU 79, 80)<br><br>Triangulo plazako bizikleten aparkalekua ordenatu behar da (INGU 87) | | |
| **Bideragarritasun azterketa** | BIDERAGARRIA | |
| **Balorazio teknikoa** | Aurreikusten da 10 bizikleta aparkaleku eta 20 patineteaparkaleku berri jartzea. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 20.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | motza | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

| | | |
|---|---|---|
| **14**<br>Kodea | **2024**<br>**INGU48** | |
| **Saila** | Ingurumena | |
| **Eskaera kopurua** | 2 | |
| **Proposamena** | Iurramendi eta Amarotz auzoak bidegorri bidez lotu | |
| INGU 48, INGU 60 | | |
| **Deskribapena** | | |
| Tolosako bide gorri sarea erosoagoa eta seguruagoa izan dadin berritzea eta zabaltzea. Horretarakobeharrezko trafiko aldaketak eginaz (zebrabideetan ere jarraipena emanaz). | | |
| **Bideragarritasun azterketa** | BIDERAGARRIA | |
| **Balorazio teknikoa** | Besteak beste, Arrameleko zubia eta biribilgunean bidegorria egitea aurreikusten da. Iurramendi eta Amarotz auzoen lotura gauzatu nahi da. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 60.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | ertaina | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

| | |
|---|---|
| **15**<br>Kodea | **2024**<br>**INGU4** |
| **Saila** | Ingurumena |
| **Eskaera kopurua** | 1 |
| **Proposamena** | Baso eskola programaren zabalpena |
| INGU 4 | |
| **Deskribapena** | BIDERAGARRIA |
| "Tolosak garai batean zuen Zuloaga Txikiko ingurumen zentroko pareko bat egitea, gure haur etagaztetxoek natura eta ingurumena zaintzeko programen eskaintza zabaltzeko, beste herrietako natur eskoletara joaten aritu gabe. Herrian herrikoa, autobus zerbitzu beharrik izan gabe". | |
| **Bideragarritasun azterketa** | |
| **Balorazio teknikoa** | Baso eskola programa martxan dago eta honen zabalpenaplanteatu daiteke. |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 20.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | ertaina |
| **Bideragarritasuna** | BAI |

| 16<br><br>Kodea | 2024<br><br>**INGU6** | |
|---|---|---|
| **Saila** | Ingurumena | |
| **Eskaera kopurua** | 1 | |
| **Proposamena** | Energia bulegoa sortu | |
| INGU 6,24,25,26,27,28,29 | | |
| **Deskribapena** | | |
| Energia komunitatea sortu | | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria | |
| **Balorazio teknikoa** | Tolosako udalak asmoa du Energia Alorrean herritarrei arretaemango dion bulego bat irekitzeko eta energia komunitateak sortzeko kanpañak aurrera eramateko. | |
| **Balorazio ekonomikoa (+-)** | 65.000 € | |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Motz | |
| **Bideragarritasuna** | BAI | |

# Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri-ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz

| | |
|---|---|
| **17**<br>Kodea | **2024**<br>**Merk4** |
| **Saila** | Turismoa, Merkataritza eta Azokak |
| **Eskaera kopurua** | 1 |
| **Proposamena** | Merkataritza sustatzeko plana |
| | |
| **Deskribapena** | |
| Auzoan dagoen merkataritzari bultzada bat emateko plana | |
| **Bideragarritasun azterketa** | Bideragarria |
| **Balorazio teknikoa** | Merkataritza sustatzeko plan bat egitea egoki ikusten da,lehendik dagoena eguneratuz. |
| **Balorazio ekonomikoa(+-)** | 30.000 € |
| **Epea (motz, ertain, luze)** | Motz |
| **Bideragarritasuna** | BAI |